



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritz, Vitoria-Gasteizen, Lehendakariatzako egoitzan, **2021eko EKAINAREN 15ean**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariatza, a las 10:00 horas del día **15 DE JUNIO DE 2021**, con el siguiente

## GAI-ZERREDA

## ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la Sesión anterior.

## LEHENDAKARITZA

## LEHENDAKARITZA

Erabaki-proposamena, Bavariako Estatu Librearekin elkar ulertzeko memorandumaren sinaduraren berri emateko dena.

2

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la suscripción del memorando de entendimiento con el Estado Libre de Baviera.

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzak finantzatzeko, 2021eko ekitaldian.

3

Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar las ayudas para acciones locales de promoción del empleo, en el ejercicio 2021.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena, toki-erakundeek gazteak kontratatze laguntzen programa finantzatzeko, Gazte Enplegua Programa Operatiboaren barruan.

4

Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar las ayudas para la contratación de personas jóvenes por entidades locales, en el marco del programa operativo de empleo juvenil, en el ejercicio 2021.



GOVERNANTZA PUBLIKO ETA  
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Erabaki-proposamena, Ikus-entzunezko Euskal Kontseilua sortzeko Euskal Herria Bildu legebiltzar-taldeak egindako Lege-Proposamena aintzat hartzearen inguruan Jaurlaritzak duen iritzia adierazteko dena.

5

Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley formulada por el grupo parlamentario Euskal Herria Bildu, para la creación del Consejo Vasco Audiovisual.

Erabaki-proposamena, Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, prestakuntza arloan.

6

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio entre el ente público de derecho privado Osakidetza - Servicio Vasco de Salud y el Instituto Vasco de Administración Pública, en materia de formación.

Erabaki-proposamena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Erakunde Autonomoaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, prestakuntza arloan.

7

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio entre los organismos autónomos Academia Vasca de Policía y Emergencias y el Instituto Vasco de Administración Pública, en materia de formación.

Erabaki-proposamena. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin, hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, prestakuntza arloan.

8

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Instituto Vasco de Administración Pública, en materia de formación.

Erabaki-proposamena. Horren bitartez, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean, hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, prestakuntza arloan.

9

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio entre la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y el Instituto Vasco de Administración Pública, en materia de formación.

Erabaki-proposamena, karrerako funtzionarioaren izaera galtzeari buruzkoa.

10

Propuesta de Acuerdo de pérdida de condición de funcionario de carrera del Cuerpo Administrativo.

Eduki ekonomikoa duten agindu eta erabakien zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

11

Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y  
MEDIO AMBIENTE



- Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean lankidetzazko hitzarmenak onartzeko dena. Hitzarmen horiek jarduerak eskuordetzeari buruzkoak dira, FEAGA eta FEADER Europako funtsen kargura finantzatzeko zuzeneko laguntzak eta landa-garapenerako neurriak kudeatzeko.
- Erabaki-proposamena, "Ondarroako portuko arrain-lonja berria abian jartzea" izeneko programa bat sortzeko.
- Erabaki-proposamena, zeinaren bidez AZTI Fundazioa berme erreala eratu beharretik salbuesten baita, bi dirulaguntza izendun jasotzeko.
- Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzen duena, nekazaritzako, elikagaigintzako eta arrantza eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2021. urteko deialdiaren oinarriak (Lehiatu Berria programa) onartzeko den Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduan araututako laguntza ekonomikoak finantzatzeko.
- Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena emateko dena. Horren bidez finantzatzen da, ardoaren, txakolinaren, sagardo naturalaren, garagardo artisauaren eta ur ontziratuen sektoreetarako 2021. urterako ezohiko laguntzak.
- Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2021erako oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak (Gauzatu-Industria Programa) sortu eta garatzeko laguntza itzulgarrien programa finantzatzeko.
- 12 Propuesta de Acuerdo por el que se aprueban convenios de colaboración entre el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa relativos a la delegación de actividades en relación con la gestión de las ayudas directas y medidas del desarrollo rural financiadas con cargo a los fondos europeos FEAGA y FEADER.
- 13 Propuesta de Acuerdo para la creación de un programa denominado "Puesta en marcha de la nueva lonja de pescado del puerto de Ondarroa".
- 14 Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Fundación AZTI de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de dos subvenciones nominativamente asignadas.
- 15 Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación de ayudas económicas reguladas en la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se aprueban, para el año 2021, las bases de la convocatoria de ayudas a la transformación y comercialización de productos agrarios, alimentarios y los derivados de la pesca y la acuicultura (programa Lehiatu Berria).
- 16 Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000 de euros para la financiación de la convocatoria de las ayudas extraordinarias a los sectores del vino, txakoli, sidra natural, cerveza artesana y agua envasada para el año 2021.
- 17 Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para la financiación del programa de ayudas reintegrables destinadas a impulsar la creación y desarrollo de pymes de base tecnológica y/o innovadoras, Programa Gauzatu-Industria, para el año 2021.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA



Erabaki-proposamena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 5151 - Portuak programan, 6.441.000 euroko konpromiso-kredituak aldatu eta banatzeko baimena emateko dena, Mutrikuko, Hondarribiko eta Bermeoko portuetan egin beharreko obrak finantzatzeko.

18 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la modificación y distribución de créditos de compromiso del Programa 5151 - Puertos, del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, para la financiación de obras a acometer en los puertos de Mutriku, Hondarribia y Bermeo, por importe de 6.441.000 euros.

Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak egin eta onartutako EAeko 2020ko Sektore Publikoaren Kontratazioa Kudeatzeko Memoria ezagutzera emateko dena.

19 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la Memoria de Gestión de la Contratación del Sector Público de la CAE 2020, elaborada y aprobada por la Junta Asesora de Contratación Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### HEZKUNTZA SAILA

#### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerrirekin lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeko baimena ematen duena, udal-titulartasuneko ikastetxe publikoek derrigorrezko bigarren hezkuntza emateko orduan eragina izan dezaten eta ikastetxeen kontserbazio, mantentze eta zaintza-gastuak finantzatzeko.

20 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de convenios de colaboración con varios municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la afectación de centros públicos de titularidad municipal a la impartición de la educación secundaria obligatoria y para la financiación de los gastos de conservación, mantenimiento y vigilancia de los centros.

#### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

#### DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Erabaki proposamena, etxebizitza publikoak sustatzeko Sopelako Asu Sektoreko G lurzatian Sopelako udalarekin hitzarmena sinatzea baimentzen duena.

21 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Ayuntamiento de Sopela para la promoción vivienda pública en la parcela G del Sector Asu de Sopela.

#### OSASUN SAILA

#### DEPARTAMENTO DE SALUD

Erabaki-proposamena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin osasunaren arloan sinatu beharreko jarduera-protokolo orokorra jakinarazteko dena.

22 Propuesta de Acuerdo por el que se comunica el protocolo general de actuación a suscribir con Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y la Agencia Vasca de Cooperación para el desarrollo, en materia de salud.

#### BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

#### DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



- |   |    |  |
|---|----|--|
| Lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-leku edo zentroi eta erlijio-aniztasunari buruzkoa.  | 23 | Anteproyecto de Ley de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco.   |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako aurrekontua duen kontratua baimentzeko dena, Euskadiko Justizia Administrazioan sistema informatiko judizialaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak emateko (Esp.: C02/006/2021). | 24 | Propuesta de Acuerdo de autorización del contrato de presupuesto superior a 5.000.000 de euros, para la prestación de los servicios necesarios para garantizar la operatividad del sistema informático judicial en la Administración de Justicia de Euskadi (Exp. C02/006/2021). |
| Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Caritas Bizkaia berme errealak eratu beharretik salbuesten baita, dirulaguntza izendun bat jasotzeko.   | 25 | Propuesta de Acuerdo de exoneración a Caritas Bizkaia de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada.   |
| Erabaki-proposamena, Itsas Salbamendu Humanitarioa elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematen diona, Aitamari Maydayterraneo proiekturako.   | 26 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la asociación Salvamento Marítimo Humanitario, para el proyecto Aitamari Maydayterraneo.   |
| Euskarri Erakundearteko Adierazpena. Zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko estrategia partekatua.   | 27 | Declaración Interinstitucional Euskarri. Estrategia compartida para la inclusión sociolaboral de menores y jóvenes en situación de vulnerabilidad.   |

IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGE BILTZAR- EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 11.

En Vitoria-Gasteiz, 11 de junio de 2021.

**IZP./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**  
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA EUSKO**  
**JAURLARITZAREN IDAZKARIA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y**  
**AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL CONSEJO DE GOBIERNO**